

Robinia pseudoacacia: SASIARKAZIA

Robinia pseudoacacia: identifikazioa



Zuhaitz
hostoerorkorra
da, 25 m-ko
garaiera izatera
hel daiteke. 100
urte baino
gehiago bizi
daiteke. Ale
gazteek azal
leuna dute eta
helduek, aldiz,
zimurtsua.



Hostoak 7-21 hostoxka arrauzkaraz osatuta daude. Arantzak baditu, batez ere adar gazteetan. Lore zuriak ditu, infloreszentzia zintzilikarietan multzokatutak. Maiatzetik ekainera bitartean loratzen da.

Espezie hau hainbat ingurune kolonizatzeke gai da eta lurzoru elkor eta eraldatueta gara daiteke. Hazien bidez (10 urtez bizigai) eta asexualki (anduitik eta sustraietatik erretzen da) ugaltzen da. Gure eskualdean asexualki ugaltzen da gehienetan. Inbaditutako eremuetan ale zaharrak erdian

kokatzen dira eta gazteak, berriz, kanpoaldean, sustraiak elkarri lotuz.

Robinia pseudoacacia: jatorria eta kokapena

Amerikako Estatu Batuetako ekialdetik dator. Baso- eta ornamentazio-landare gisa erabili ohi da eta herrialde epel askotan hedatu da. Bizkaian eta Gipuzkoan oso ugaria eta Araban ere aurkitzen da. Mendi-magalak, landaredi eraldatua duten eremuak, ibaiertzak, eta abar okupatzen ditu. Azken hamarkadetan hedatu da eta EAEko espezie inbaditzaile zabalduenetako bat da.

Robinia pseudoacacia: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Ezaugarri inbaditzaile argiak dituen espeziea da (hazkunde azkarra, ugalketa begetatiborako gaitasun handia, tratamenduekiko erresistentzia...). Beste zuhaitz eta zuhaixka espezieak kanporatzeko joera du. **Alergiak** eragiten ditu eta bere azala, hostoak eta sustraiak **toxikoak** dira.

Robinia pseudoacacia: kontrol eta kudeaketa metodoak

Espezie hau kontrolatzea oso zaila da, motzondoan eta sustraien bidez ernaberritzeko ahalmen handia baitu.

- Urteroko plantulen erauzketa tresna arin baten laguntzaz; sustrai guztiarekin atera behar dira
- Zuhaitzen eraztuntzea, hazkuntza garaian ahal bada; kimuak urtetan zehar kendu behar dira sustrai-sistema eta haziak agortu arte
- Inbasio larrietan glifosatoa, triklopira edo piklorama erabil daitezke, injekzio baten bidez ala zuzenean motzondoan emanez; langile profesionalak egin behar dute beti

Lehen tratamenduaren ondoren bertako espezieak berlandatu behar dira.

Landare-hondarrak balorizazio energetikoaz arduratzen den zentro eskudun batera eraman behar dira, betiere ongi itxiak. Balorizazio energetikoa instalazio pribatueta eta balorizazio materiala ere egin daitezke (bere egurra kalitatezkoa da), baina beti kontrol zorrotza eraman behar da (zuriketa,...) inbasioak saihesteko. Konpostatzea ez da komenigarria. Erabilitako materiala eta ibilgailuak artoski garbitu behar dira.